

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 174/2017 FORU DEKRETUA, abenduaren 26koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenekuen erabilera arautzen da.

Atsedenekuak aire zabaleko aisialdirako leku gisa sortu dira, gehienetan natura ingurunean, eta oinarrizko azpiegitura izaten dute. Haien eginkizun nagusiak dira jolasa eta herritar eta bisitariek naturarekin bat egitea. Atsedenekuetan, erabiltzaileek hiri-ingurunean ez dagoen espazioa aurkitzen dute.

Atsedenekuetako jardueren dibertsifikazioak, erabiltzaile-kopuruaren igoerarekin batera, leku horien funtzionamenduan eragin dezake, eta, oro har, atsedenekuak kokatuta dauden naturaguneen kontserbazioan.

Atsedenekuen erabilera egokia bermatzeko, eta, edonola ere, erabiltzaileei eta inguruneari kalte egin diezaieketen egoerak (zarata, leku mugatuak, istripu arriskuak, kalte ekologikoak...) ahalik eta gehien prebenitzeko, beharrezkotzat jotzen da herritarrek atsedenekuetan egon daitezkeen zerbitzuak erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen arautegia onartzea. Horrela, ahal den neurrian, ingurumenaren degradazioa, erabiltzaileen segurtasunerako arriskuak eta zerbitzuen kalitateak txarrera egitea eragin ditzaketen arazoak saihestu ahal izango dira.

Foru dekretu honetan ezartzen den arauketaren helburua da Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikita dauden Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko atsedenekuen erabilera eta luperketa kudeatzea. Hain zuzen, xedapen honetan jasotzen dira mendietan eta naturaguneetan dauden atsedenekuak, foru titulartasunekoak direnak zein herri onurako gisa katalogatutako mendien eta naturagune babestuen kudeaketaren gaineko eskumen-esparruan kudeatzen direnak.

Atsedenekuok Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikitzeak ahalmena ematen dio atxikitako ondasunak erabili, administratu, mantendu eta kontserbatzeko. Lan horiek ondasunen izaeraren, atxikipenaren helburuen eta aplikatzeakoak diren arau teknikoaren arabera egingo dira.

Ildo horretan, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak eskumena du Bizkaiko ingurumen-politika definitu eta garatzeko, ingurumen-iraunkortasuna kontuan hartuta herritarren ongizatea eta garapen sozio-ekonomikoa sustatzearen. Horrez gainera, basoen zein naturaren kontserbazioaren arloan, helburua da printzipio hau aplikatzea: aisialdiko naturaguneen erabilera eta luperketa ingurumenarekin adeitsua dela bermatzea.

Foru dekretu honetan arautzen den erabilera-araubidea Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 62. artikuluan eta hurrengoetan jasota dago. Hain zuzen ere, erabilera erkidea honela definitzen da arau horretan: erabilera berdinean dagoen herritar guztiei; hortaz, batzuek erabiltzeak ez du eragotziko gainerako interesdunek ere erabiltzea. Erabilera-araubidea hori berdinean ezartzen da Mendiei eta Babespeko Naturaguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren 75. artikuluan ere.

Foru arau horien arabera, erabilera erkide orokorrak ez du baimenik behar, modu askean erabil daiteke, eta dituen muga bakarrak hauek dira: gainerako pertsonak egiten duten erabileraren ondoriozko mugak, ondasunen izaeraren errespetuaren eta ondasun horien zaintzaren ondoriozko mugak, eta erabilera hori ordenatua izateko emandako garbitasun-arauen eta aginduen ondoriozko mugak. Baso eta ingurune naturaletako atsedenekuei dagokienez, jolas-erabilera horrek bat etorri behar du legez ezarritako plan, aprobetxamendu, baimen eta emakidetan ezarritakoarekin. Arau horiek dekretu honetako arauketa babesten duten oinarrizko legeko gaikuntza dira.



Foru-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusi eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak.

Foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretzeko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, dekretu honen izapidetzean foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, «Generoaren eraginaren aurretzeko ebaluazioari buruzko txostena».

Hori guztia dela eta, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko Harremani buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.7, 7.a.9 eta 7.c.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabilia, Ogasun eta Finantza Sailak eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak proposatu eta Foru Aldundiak bi mila eta hamazazpiko abenduaren 26ko bileran eztabaidatu ostean, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. — Xedea

Foru dekretu honen helburua da Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak kudeatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko atsedenekuen erabilera eta luperketa arautzea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Naturaren kontserbazioari buruzko 1/2014 Legegintzako Dekretuan, Basoei buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan atsedeneku bakoitzari aplikatu beharreak arauetan ezarritako helburuekin bat; helburu horien bidez, herritarren bizi-kalitatea hobetu eta parte hartze zuzen eta bidezko bat sustatu nahi da ingurumenaren erabilera iraunkorra eginda.

2. artikulua. — Definizioa

Atsedenekua aire zabaleko aldea edo ingurunea da, gaua igaro gabe iraupen laburreko egonaldiak egiteko eta aire zabalean jolas-jarduerak egiteko altzariak dauzkana.

3. artikulua. — Aplikazio-eremua

1. Foru dekretu honetako xedapenak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko atsedenekuei aplikatuko zaizkie, haien kudeaketa Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari esleitu bazaio, eta dekretu honen 2. eta 4. artikuluetako baldintzak betetzen badituzte.

2. Era berean, foru dekretu hau Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak kudeatzen dituen baso eta baso-eremuetako jolas-aldeei aplikatuko zaie; izan ere, jolas-alde horiek atsedenekutzat hartzen dira, foru dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

3. Printzipioz, sektoreko legeria espezifikoak edo ingurumen arlokoak arautuko ditu foru dekretu honetan araututako atsedenekuen erabilerak; hala ere, arau berezirik ez badago edo arau berezi horiek nahikoak ez badira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondareari buruzko Foru Arauaren xedapenek arautuko dituzte, betiere hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.



4. Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenlekuak Atsedenlekuen Katalogoan sartuko dira. Katalogo hori publikoa izango da. Katalogo hori eranskinean sartu da.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru aginduaren bidez, atsedenleku berriak sartu ahal izango dira katalogoan, eta edozein arrazoigatik izaera hori galtzen dutenak katalogotik kanpo geratuko dira.

5. Foru dekretu hau ekipamendu horien erabiltzaileei aplikatuko zaie, bai eta zerbitzua hobetzeko edo dibertsifikatzeko eman diren eta ekipamenduen barruan dauden administrazio-emakiden titularrei ere. Horretaz gain, erakunde publiko eta pribatuei eta edozein pertsona edo kolektibori aplikatuko zaie, ondasun publiko horien funtzionamendu ona eta kontserbazioa eragozten dutenean.

II. KAPITULUA

ATSEDENLEKUEN ERABILERA

4. artikulua. — *Xedapen orokorra*

1. Atsedenlekuetarako zehazten diren erabilerek helburu hauek betetzea dute xede:

a) Gizarte arlokoak, turismo ekologiko eta aktiboko era berrien garapenari eta aire zabaleko aisia- eta kirol-jarduerei lotutakoak.

b) Ingurumen arlokoak, kultur eta natur ondarearen kontserbazioa sustatzeko.

c) Helburu didaktikoak, naturan hezkuntzako jardueren bidez.

d) Horren guztiaren helburua landa-garapenari laguntzea da, atsedenlekuen eraginpeko aldean eta udalerrietan eskainiko diren zerbitzuen inguruan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortuz, eta zuzeneko enplegua (azpiegiturak berreskuratuzeko eta egokitzeko, mantentze-lanetarako eta zerbitzuetarako) nahiz zeharkakoa sortuz.

2. Atsedenlekuetako egonaldiaren ordutegia eguzkia irteten denetik sartu artekoa izango da.

5. artikulua. — *Erabilera baimenduak*

Hauek dira erabilera baimenduak:

1. Atsedenlekuak helburu hauetarako erabiltzea: ekologia, aisialdi osasuntsua, kirola, turismoa eta kultur eta natur ondarearen gozamena.

2. Atsedenlekuetan dauden zerbitzuen erabilera.

3. Animaliak edukitzea. Erabiltzaileek laguntza-animalkiak eraman ditzakete; dena den, jabeak beren animalien jokabidearen erantzuleak dira, eta jokabide desegoki edo zuhurtziagabearen ondorioz atsedenlekuetako pertsona eta gauzei egiten dizkieten kalteen erantzukizuna izango dute.

4. Sua janaria prestatzeko dauden sutegietan bakarrik piztu ahal izango da, eta debekatuta egongo da sua piztuta eta txingar goriak uztea.

6. artikulua. — *Baimendu daitezkeen erabilerak*

1. Erabilera hauek baimendu daitezke:

a) Baimendutako erabilerekin bateragarriak diren kirol probak, aurretik baimendu badituzte.

b) Baimendutako erabilerekin bateragarriak diren jolas eta aisialdiko jarduerak.

c) Ibilgailuen zirkulazioa mantentze-lanetarako, zaintzarako, zerbitzuetarako eta finka pribatuetan sartzeko.

2. Jarduera horietako edozein egiteko baimena Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari eskatu behar zaio.

**7. artikulua. — Debekatutako erabilerak**

Oro har, beren-berégiko baimenik ez badago, erabilera hauek debekatuta daude:

1. Atsedenuketan motordun ibilgailuen zirkulazioa, baimendutako ibilgailuak izan ezik.
2. Motorizatu bako ibilgailu edo tramankuluén joan-etorriak, beren tamaina, pisua edo abiadura dela-eta erabiltzaileen edo azpiegituraren kontserbazioa arriskuan jartzen badute.
3. Ekipo elektrogénoak erabiltzea, bai eta musika-ekipoén, megafoniaren eta horrelakoen bidez soinu amplifikatuak igortzea ere.
4. Mahaiak erreserbatzea.
5. Hondakinak, zaborrak... edukiontzietatik kanpo uztea.
6. Sua barbakoetatik kanpo piztea edo barbakoá eramangarriak erabiltzea.
7. Aldi baterako instalazioak jartzea eta erabiltzea, hala nola futboleko ateak, bo-leibol sareak... Tamaina txikiko altzari tolesgarria erabiltzea baimenduta dago, baldin eta pertsonen joan-etorria eragotzi edo zailtzen ez badu.
8. Kanpatzea.
9. Alanbre arantzaúneko itxiturak atsedenukuen ondoko lursail eta finketan.
10. Lotu gabe dauden txakurrekin edo beste laguntza-animalia batzuekin ibiltzea edo egotea.
11. Artzaintza, segurtasun- eta higiéné-arrazoiengatik.
12. Mota guztietako ehiza eta ehizarako tresnak. Debekatuta dago animalia basatiak nahita hiltzea, kaltetzea, eragozteá edo urduri jartzea, bai eta habiak, kumeak eta arrautzak hondatzea, kaltetzea edo biltzea, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean eta, bereziki, 54. artikuluan ezarritakoarekin bat.
13. Flora basatiaren aleak erauztea, moztea edo kaltetzea.
14. 14 urtetik gorako pertsonék haurren jolaserako moduluak erabiltzea.
15. Ingurumenaren kontserbazioan edo mantentzean eragiten duten erabilera desegokiak edo baimendu gabekoak, hala nola pintadak egin eta hainbat gauza (seinaleak, altzariak, segurtasun-elementuak, zuhaitzak, zuhaixkak, landareak, instalazioak, azpiegituraren elementuak...) apurtu edo lapurtzeko ekintza bandalikoak.

III. KAPITULUA

ANTOLATUTAKO JARDUERA KOLEKTIBOEN ARAUKETA**8. artikulua. — Baimena**

Atsedenuketan kontzentrazio kolektiboak egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari baimena eskatu beharko zaio, hilabete lehenago.

9. artikulua. — Eskatzailea

Elkarte, federazio eta jolas-eta kirol-klubén ordezkari baimenduek eta kasuan kasuko administrazioetako legezko ordezkariék eska dezakete jarduera kolektiboak egiteko baimena.

10. artikulua. — Arduraduna

Edozein jarduera kolektibo egiteko, eskatzaileak ekitaldiaren antolaketaren ardura-dun bat izendatuko du, jarduera baimentzeko arauak zorrotz betetzen direla zaindu ditzan.

**IV. KAPITULUA**
ZEHAPEN ARAUBIDEA**11. artikulua. — Xedapen orokorrak**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak arreta berezia jarriko du atsedenekuen izaera ekologikoa eta irudi ona mantentzeko, ondare publiko gisa, eta tinko jardungo du zuzeneko erabiltzaileek nahiz beste pertsona edo erakunde batzuek atsedenekuen mantentze eta erabilera egokia kaltetzen dutenean.

2. Foru dekretu honetan xedatutakoa hausten duten ekintza edo omisioak zehatuko dira aplikatzekoa den sektoreko arauarekin edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauarekin bat, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunek erantzukizun penala, zibila edo beste era bateko erantzukizuna eskatu ahal izango diete erantzuleei, dagokion instantzian.

3. Foru dekretuan xedatutakoa ez betetzea salatzeko ekintza publikoa izango da. Agintari izaera onartzen zaien funtzionarioek, ertzainek, udaltzainek, eta abarrek zein basozainek, legezko betebeharrekin bat, egiaztatutako egitateak jasotzeko egiten dituzten agiriak egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada.

4. Sektorean aplikatzekoa den araudian edo Bizkaiko Lurralde Historikoko ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauan ezarritako arau-hausteren bat egiten duenak eragindako kalteak eta galerak ordaindu behar izango ditu —kalte eta galera horien balorazioa egin ondoren— eta ondasunak konpondu eta arau-haustea egin aurretik zuten egoerara itzuli beharko ditu edo, ondasun edo eskubidearen erakunde titullarrak idatzizko adostasuna emanda, ordeztu beharko ditu.

Eragindako kalteak eta galerak ordaintzeko betebeharra eta jatorrizko egoerara itzultzeko betebeharra bateragarriak izango dira ezartzen den isunarekin eta, hala denean, ondasunen gainean eratutako harreman juridikoen azkentzearekin.

Administrazio-bidean eskatuko da erantzukizun hori, interesdunari entzun ondoren. Ematen den ebazpenean borondatez betearazteko epe bat ezarriko da, eta, betetzen ez bada, betearazte subsidiarioa egingo da erantzulearen kontura.

5. Erantzukizuna solidarioa izango da, arau-hausle bat baino gehiago badago eta haietako bakoitzaren parte-hartze maila ezin bada zehaztu.

12. artikulua. — Zehatzeko eskumena eta prozedura

Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko atsedenekuetan, zehatzeko ahala erabiliko da zehapen-prozedurarekin bat, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta arlo horretan aplikatzea den araudian xedatutakoaren arabera. Zehatzeko ahala organo hauei dagokie:

a) Zehapen-espeditenteak hasi eta izapidetzea Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren organo eskudunei dagokie, foru dekretu honen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Hurrengo artikuluetan kasuan-kasuan ezartzen diren organoei dagokie zehapenak ezartzeko eta erantzukizunak eskatzeko eskumena ondokoei dagokie.

13. artikulua. — Arau-haustek eta zehapenak basoetan eta babestuetako ingurune naturaletan kokatutako atsedenekuetan

Basoetan eta babestuetako ingurune naturaletan kokatutako atsedenekuetan foru dekretu honen aurka egiten diren arau-haustek ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren 116-121. artikuluetan eta natura-ondarearen arloko legerian ezarritakoarekin bat zehatuko dira, eta haietan aurreikusten ez den guztian, ondarearen arloko zehapen-araubidea aplikatuko da.



Zehatzeko ahala Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko organo eskudunek erabiliko dute, 12. artikuluan zehaztutako arauekin bat; hala ere, ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren aurkako arau-hauste oso larriak egiten direnean, Bizkaiko Foru Aldundiaren kide anitzeko organoak ezarriko ditu zehapenak.

14. artikulua.— Arau-haustek eta zehapenak gainerako atsedenekuetan

1. Foru dekretu honetan ezarritako erabilera-araubidea zein betebeharrak eta debekuak ez betetzea arau-haustea izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 115-117 artikuluetan (116. artikuluan, batez ere) tipifikatutakoaren arabera.

2. Ezartzen diren zehapenak azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 117. artikulua-rekin bat etorri beharko dute.

3. Zehapenak ezartzeko eta erantzukizunak eskatzeko eskumena honako hauei dagokie: Ogasun eta Finantza Saileko titularrari, isun arin eta larriak ezartzen direnean, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kide anitzeko organoari, isun oso larriak ezartzen direnean.

15. artikulua.— Eskumena duen organoa

Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua izango da foru dekretu honetan ezarritako jarduketak eta prozedurak instruituko dituen organoa, eta ofizioz egingo ditu proposamena egiteko behar dituen datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak; izan ere, datu horiek kontuan hartuta ebazpen-proposamena egin beharko dio ebazteko eskumena duen organoari. Nolanahi ere, aintzat hartu behar dira foru dekretu honen 12. artikuluan eta hurrengoetan zehatzeko araubideari dagokionez jasotzen diren eskumenak.

Espedientea instruitzen ari den bitartean, organo instrukzio-egileak behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango du ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak izapide hori betetzen ez badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.— Katalogoa mantentzea eta eguneratzea

Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari agindua ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenekuen katalogoa eguneratuta izateko eta argitaratzeko; katalogo horren kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Atsedenekuen katalogoa Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da.

Bigarrena.— Koordinazioa

Jolas-azpiegituren arloan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek betebeharrak izango dituzte beren arteko harremanetan: elkarri informazioa ematea, lankidetzan aritzea, koordinatuta jardutea eta bakoitzaren eskumen-eremua errespetatzea. Horretaz gain, elkarrekin zainduko dute lurralde historikoko atsedenekuen jarraitutasuna eta funtzionaltasuna, legeetan araututako printzipioak beteta.

ASKEN XEDAPENA

Lehenengoa.— Arauak emateko gaikuntza

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan xedatutakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren arauak eta egintza guztiak eman ditzan.



Bigarrena.—Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2017ko abenduaren 26an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua
ELENA UNZUETA TORRE

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ERANSKINA / ANEXO**

ABADIÑO	Aldazitola	Aldazitola
ABANTO ZIERBENA	El Cerrillo	El Cerrillo
ABANTO ZIERBENA	Siete Robles (Campa El Chingao)	Siete Robles (Campa El Chingao)
ALONSOTEGI	Oro iturria	Fuente del Oro
ALONSOTEGI	Pagasarriko elur-zuloak – Tarín iturria	Neveras del Pagasarri – Fuente del Tarín
AMOREBIETA-ETXANO	Belatxikieta	Belatxikieta
AMOREBIETA-ETXANO	San Martin de Arano (Dudagoitia)	San Martin de Arano (Dudagoitia)
AREATZA	Asteitze	Asteitze
AREATZA	Larreder	Larreder
AREATZA	Pagomakurre	Pagomakurre
AREATZA	Upo Makatza	Upo Makatza
ARRIGORRIAGA	Ollargan-Montefuerte	Ollargan-Montefuerte
ARTZENTALES	La Toba	La Toba
AULESTI	Santa Eufemia-Igotz	Santa Eufemia-Igotz
BAKIO	Jatako jolas-aldea	Area recreativa Jata
BAKIO	Goitisolalde (Larrondo)	Goitisolalde (Larrondo)
BALMASEDA	Kolitzza (La Nevera)	Kolitzza (La Nevera)
BALMASEDA	La Porqueriza	La Porqueriza
BALMASEDA	Las Laceras	Las Laceras
BARAKALDO	Argalario	Argalario
BARRIKA	Barrika	Barrika
BERMEO	Gaztelugatxeko atsedenekua	Biotopo de San Juan de Gaztelugatxe
BERRIZ	Oiz	Oiz
DIMA	San Miguel txiki	San Miguel txiki
DIMA	Zumeltza	Zumeltza
DIMA	Zumeltza Gruta	Zumeltza Gruta
DURANGO	Landederra	Landederra
DURANGO	Larrinagatxu	Larrinagatxu
DURANGO	Neberondo	Neberondo
DURANGO	San Andres (Bidezelai)	San Andres (Bidezelai)
DURANGO	Sanrokeburu	Sanrokeburu
ERANDIO	Akarlandako parke metropolitarra	Parque Metropolitano de Akarlanda
ETXEBARRI	Kortatxueta	Kortatxueta
GALDAKAO	Aranzelai	Aranzelai
GALDAKAO	Elorritxueta-El Vivero	Elorritxueta-El Vivero
GALDAKAO	El Viveroko igoera	Subida al Vivero
GALDAMES	Atxuriaga parkea	Parque Atxuriaga
GARAI	Lasiar	Lasiar
GETXO	Baterien aldea	Area de las Baterias
GORLIZ	Gorlizko pinudia	Pinar de Gorliz
GÚEÑES	Eretza	Eretza
IGORRE	Larragan	Larragan
ISPASTER	Ogella	Ogella
ISPASTER	Otoio	Otoio
ISPASTER	Talaia	Talaia



KARRANTZA HARANA	Pozalagua (Ranero)	Pozalagua (Ranero)
LEIOA	Artazako parkea	Parque de Artaza
LEMOA	San Antolin	San Antolin
MENDEXA	Karraspio	Karraspio
MUSKIZ	La Arena hondartzako laguntzako atsedenekua	Apoyo a la Playa de La Arena
MUSKIZ	Rebortun	Rebortun
OROZKO	Altzagorta	Altzagorta
OROZKO	Belaustegi	Belaustegi
OROZKO	Santa Marina	Santa Marina
OTXANDIO	Presazelai	Presazelai
SANTURTZI	Serantes mendia	Monte Serantes
SOPUERTA	Las Balsas de La Baluga	Las Balsas de La Baluga
SOPUERTA	La Balugako Santa Ana	Santa Ana de La Baluga
SUKARRIETA	San Antonio hondartzako laguntzako atsedenekua	Apoyo a la Playa de San Antonio
SUKARRIETA	Txatxarramendi uhartea	Isla Txatxarramendi
SUKARRIETA	Padurako parkea – Toña	Parque de la Marisma – Toña
TRUCIOS-TURTZIOZ	Aguanaz	Aguanaz
TRUCIOS-TURTZIOZ	El Calero	El Calero
TRUCIOS-TURTZIOZ	Gordon (La Trinidad)	Gordon (La Trinidad)
TRUCIOS-TURTZIOZ	San Roke	San Roke
URDUÑA-ORDUÑA	Fuente de La Choza iturria	Fuente de La Choza
URDUÑA-ORDUÑA	La Teta iturria	Fuente de La Teta
URDUÑA-ORDUÑA	La Muera	La Muera
URDUÑA-ORDUÑA	La Chozako pinudia	Pinar de la Choza
TRAPAGARAN	Zugaztieta	La Arboleda
ZALLA	Bolunburu	Bolunburu
ZALLA	La Brena	La Brena
ZEANURI	Saldropo	Saldropo
ZEBERIO	Upoko Pagadia	Upoko Pagadia